

Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Aitorpena

Rio de Janeiron 1992ko ekainaren 3tik 14ra bitartean bilduta,
Giza Ingurunearen buruzko Nazio Batuen Konferentziaren Aitorpena
-Stockholmen onartu zen 1972ko ekainaren 16an- berretsita, eta horretan
oinarritzen saiatuz,

Estatuen, gizartearen oinarrizko sektoreen eta pertsonen arteko kooperazio-
-maila berriak sortzearen bidez munduko elkartasun berri eta berdina xedatzeko
helburuarekin,

Guztion interesak errespetatu eta munduko ingurumen-sistemaren eta
garapenaren osotasuna babesteko nazioarteko akordioak lortzen saiatuz,

Lurraren, gure etxearen, izaera osoa eta elkarreragilea onartuz,

Hurrengo aldarrikatzen da:

1. PRINTZIPIOA

Gizakiak garapen iraunkorrarekin zerikusia duten kezken gunea dira.
Naturarekin harmonian, bizi osasuntsu eta produktiboa izateko eskubidea dute.

2. PRINTZIPIOA

Nazio Batuen Eskutitzarekin eta nazioarteko eskubide-printzipioekin bat, Estatuak beren ingurumen- eta garapen-politikei jarraiki beren baliabideak aprobetxatzeko eskubide subiranoa dute. Halaber, erantzukizuna dute beren mugetan edo beraien kontrolpean egindako jarduerak gainerako Estaturen edo nazioko jurisdikzio-mugetatik kanpoko ingurumena ez kaltetzeko.

3. PRINTZIPIOA

Garapenerako eskubidea oraingo nahiz etorkizuneko belaunaldien garapen- eta ingurumen-beharrak modu berean errespetatuz gauzatu behar da.

4. PRINTZIPIOA

Garapen iraunkorra lortzeko, ingurumenaren babesa garapen-prozesuan sartu beharko da eta ez da modu isolatuan kontuan hartuko.

5. PRINTZIPIOA

Pobrezia baztertzeko lanetan Estatu eta pertsona guztiek lagundu beharko dute, ezinbestekoa baita garapen iraunkorra lortzeko. Bizi-maila desberdinak murriztu behar dira eta munduko herri gehienek beharrei hobe erantzun behar zaie.

6. PRINTZIPIOA

Garapen bidean dauden herrialdeen egoerek eta behar bereziek aparteko lehentasuna izango dute; herrialde atzeratuenei eta ingurumenaren ikuspuntutik ahulenak direnei aparteko arreta eskainiko zaie. Ingurumenari eta garapenari buruz nazioartean hartzen diren neurrietan herrialde guztien interesak eta beharrak kontuan hartu beharko lirateke.

7. PRINTZIPIOA

Lurraren osasuna eta ekosistemen osotasuna kontserbatu, babestu eta berreskuratzeko, Estatuak elkartasun-espirituz kooperatu beharko dute. Munduko ingurumena degradatzeko orduan, eragin desberdina izan dutela ikusirik, Estatuak erantzukizun komunak baina bereziak dituzte. Herrialde garatuek garapen iraunkorra nazioartean bilatzeko duten erantzukizuna onartzen dute, batetik gizarteek munduko ingurumenaren gainean gauzatzen duten presioa ikusirik, eta bestetik, beren teknologiak eta baliabide finantzarioak kontuan hartuta.

8. PRINTZIPIOA

Pertsona guztien bizi-kalitatea hobetu eta garapen iraunkorra lortzeko, Estatuak produkzio eta kontsumo eustezinak murriztu eta deuseztatu beharko lituzkete, baita politika demografiko egokiak sustatu ere.

9. PRINTZIPIOA

Garapen iraunkorra lortzeko beren ahalmena indartu beharko lukete Estatuak. Ezagutza zientifikoak eta teknologikoak trukatzuz, jakinduria zientifikoa gehitu beharko litzateke. Gainera, teknologiak garatu, egokitu, hedatu eta transferitu egin beharko lirateke, batez ere, teknologiak berriak eta berriztatzaileak.

10. PRINTZIPIOA

Ingurumen-gaiak lantzeko modurik egokiena interesatuta dauden hiritar guztiek parte hartzea da. Bakoitzak dagokion mailan parte hartuko luke. Nazio-mailan pertsona orok izango du ingurumenari buruz herri-agintariek duten informazioa eskura, komunitateentzat arriskutsuak diren materialei eta jardueri buruzko informazioa barne. Gainera, erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera izango dute. Estatuak hiritarren partaidetza eta sentsibilizazioa sustatu eta erraztu beharko dute eta, horretarako, informazioa guztion eskura jarriko dute. Prozedura judizialak eta administratiboak eraginkortasunez kontsultatu

ahal izango dira. Horien artean egongo da kalteak ordaintzea eta dagozkion baliabideak atxikitzea.

11. PRINTZIPIOA

Estatuek ingurumenari buruzko lege eraginkorrak egin beharko dituzte. Arauek, antolamendu-helburuek eta ingurumen-lehentasunek aplikatzen diren ingurumen- eta garapen-testuingurua islatu beharko lukete. Herrialde batzuek aplikatutako arauak baliteke egokiak ez izatea eta beste herrialdeetan arrazoitu gabeko kostu soziala eta ekonomikoa sortzea, bereziki, garapen bidean dauden herrialdeetan.

12. PRINTZIPIOA

Estatuak lankidetzan aritu beharko lirateke nazioarteko sistema ekonomiko onuragarria eta irekia lortzeko, herrialde guztiek hazkuntza ekonomikoa eta garapen iraunkorra izatearren. Hala, ingurumen-degradazioaren arazoei hobe aurre egin dakieke. Ingurumen helburuak dituzten merkataritza-politiken neurriak ez lukete diskriminazio-bitarteko arbitrarioa edo justifika ezina izan behar, ezta nazioarteko merkataritzaren muga ere. Herrialde inportatzailearen mugetatik kanpo sortzen diren ingurumen-arazoak konpontzeko ez lirateke alde bakarraren neurriak hartu behar. Mugaz haraindiko edo munduko ingurumen-arazoak lantzera bideratutako neurriak, ahal den neurrian, nazioarteko adostasunean oinarritu beharko lirateke.

13. PRINTZIPIOA

Ingurumen-poluzioaren eta bestelako kalteen biktimei dagokienez, erantzukizuna eta kalte-ordaina zehazteko, Estatuak nazioko legeria garatu beharko dute. Estatuak, gainera, modu zabalagoan eta erabakigarriagoan lagundu beharko dute beren muga barruko edo kontrolpeko jarduerak

eragindako kalteengatik erantzukizuna eta kalte-ordainak zehatzearren nazioarteko lege berriak gauzatzeko orduan.

14. PRINTZIPIOA

Edozein jarduerak eta substantziak ingurumenaren degradazio larria sortzen duenean edo giza osasunerako kaltegarritzat jotzen denean, Estatuak eraginkortasunez arituko dira bestelako Estatuetan berriz kokatu edo transferitu nahi izanez gero, saihestu eta gogoia kentzeko.

15. PRINTZIPIOA

Ingurumena babesteko, Estatuak hedapen osoz aplikatu beharko dute zaintzaren irizpidea beren ahalmenekin bat. Kalte larriaren edo itzulezinaren arriskua dagoenean, erabateko ziurtasun zientifikoaren gabezia ez da arrazoitzat erabiliko ingurumenaren degradazioa saihestearren, kostuen arabera neurri eraginkorrak hartzearen erabakia atzeratzeko.

16. PRINTZIPIOA

Nazioko agintariek ingurumen-kostuak barneratzen eta tresna ekonomikoak erabiltzen saiatu beharko lirateke. Kontuan hartu beharko litzateke poluitzen duenak, hasieran behintzat, poluzioaren kostuak bere kargura izan beharko lituzkeela. Hori aplikatzeko interes publikoa kontuan hartu behar da eta ez dira nazioarteko merkataritza eta inbertsioak kaltetuko.

17. PRINTZIPIOA

Nazioko tresna modura, ingurumen-inpaktua ebaluatu beharko da, proposatzen den jarduerak ingurumenean inpaktu negatibo nabarmena sor dezakeenean. Erabakia nazioko agente eskumendunak hartu beharko du.

18. PRINTZIPIOA

Estatuek berehala jakinaraziko diete gainerako Estatuari natur hondamendiez edo larrialdiko beste egoera batzuez, Estatu horien ingurumenean berehalako ondorio kaltegarriak izan badezakete. Nazioarteko komunitateak ahalegin guztiak egin beharko ditu Estatu kaltetuei laguntzeko.

19. PRINTZIPIOA

Estatu batek bere jarduerarekin mugaz haraindiko beste tokian ingurumen-ondorio kaltegarriak sor baditzake, dagokion informazioa eskuratu beharko du eta aldez aurretik modu egokian jakinaraziko du. Estatu horiei modu goiztiarrean eta fede onez kontsultatu egin beharko die.

20. PRINTZIPIOA

Emakumezkoek oinarrizko zeregina dute ingurumena antolatu eta garatzeko orduan. Beraz, garapen iraunkorra lortzeko ezinbestekoa da erabat parte hartzea.

21. PRINTZIPIOA

Munduko gazteen sormena, ideiak eta baloreak suspertu beharko lirateke, garapen iraunkorra lortzera bideratutako munduko elkartasuna lantzeko. Hala, guztiontzako etorkizun hobea ziurtatuko litzateke.

22. PRINTZIPIOA

Populazio indigenak eta beren komunitateak, baita bestelako tokiko komunitateak ere, oinarrizko zeregina dute ingurumena antolatu eta garatzeko orduan, tradiziozko praktikak eta ezagutzak erabiltzen baitituzte. Estatu horien identitatea, kultura eta interesak onartu eta bultzatu beharko lituzkete eta garapen iraunkorra lortzeko partaidetza eraginkorra izan beharko lukete.

23. PRINTZIPIOA

Zapalduta, menderatuta eta okupatuta dauden herrien ingurumena eta natur baliabideak babestu behar dira.

24. PRINTZIPIOA

Definizioz, guda garapen iraunkorraren arerioa da. Ondorioz, gatazka armatuak dauden garaietan Estatuak ingurumena babesteko nazioarteko zuzenbidearen xedapenak errespetatu beharko dituzte eta, ondoren, garatzen lagundu, beharren arabera.

25. PRINTZIPIOA

Bakea, garapena eta ingurumenaren babesa elkarreragileak eta bereiztezinak dira.

26. PRINTZIPIOA

Estatuak baketsu ebatzi beharko dituzte ingurumenari buruzko eztabaida guztiak. Horretarako, Nazio Batuen Eskutitzarekin bat dagokion bitartekoa erabiliko da.

27. PRINTZIPIOA

Garapen iraunkorraren esparruan aitorpenaren printzipioak aplikatzeko eta, ondoren, nazioarteko eskubidea garatzeko, estatuak eta pertsonak fede onez eta elkertasunez jardungo dute.

Rioko Konferentzia

Ingurumen eta Garapen Iraunkorraren Idazkaritza

San Martin 451 • C1004AAI C. de Buenos Aires • Argentina • Tel (54) (11)

4348 8200 • Faxe (54) (11) 4348 8300